



**SEGURAKO UDALA**

## MUGIMENT KIROL TXARTELA

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, Segura ere MUGIMENT Kirol Txartela programan sartuko da. Seguran Kirol Txartela daukan orok, Mugiment Kirol Txartela edukitzeko aukera izango du.

Mugiment Kirol Txartela doakoa da erabiltzailearentzat eta proiektuan sartuta dauden EAEko beste herrietako kirol ekipamenduen erabilera egiteko aukera ematen du, herri horrek jarritako baldintzetan (egutegia eta ordutegia batez ere). Alderantziz, beste herrietakoak Segurara ere etortzeko aukera izango dute (ordutegi eta egutegi mugatuan).

Seguran, kirol txartela eginda daukanak edo eta 2023an egiteko asmoa daukanak, Mugiment Kirol Txartelean alta emateko aukera izango du, Baratze Pilotalekuko harrerako ordutegian, 2023ko urtarrilaren 2tik aurrera.

Harrerako ordutegia:

**ASTELEHENA**

08:30-10:00 / 17:00-18:30

**ASTEAZKENA**

10:30-14:00

**OSTEGUNA**

08:30-10:00 / 18:30-20:00

Aprobetxatu eta gozatu kirolaz, 2023an ere!

Seguran, 2022ko abenduaren 29an

Segurako Udala